



# Jurisprudentiaren hiru hileko begirada 2023ko apirila-ekaina

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (EBJA)  
Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA)

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien  
Bulegoa  
2023ko uztaila

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*

[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

[international@ararteko.eus](mailto:international@ararteko.eus)



*Laburpen honetan, EBko Justizia Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2023ko apiriletik ekainera emandako epaiak jaso dira, Arartekoaren lan-arlo batzuetan jakingarriak izan daitezkeelakoan. Txostenean ageri diren epigrafeen sailkapena Arartekoaren lanaren egituraketaren arabera da. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak epaiak hautatu ditu, eta horien laburpena egin. Arartekoak ez du inolako erantzukizunik hartuko laburpen horien gaineko erabileragatik; ildo horretan, aipaturiko ebazpen judizialen edukirako igorpena egiten du, erabakiez zehatz-mehatz jakiteko.*



Obrak lizentzia hau du: [Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional \(CC BY 4.0\)](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/)



**Arartekoaren argitalpenak ikusteko:**

- [webean](#)
- [posta elektronikoz eskatuta](#)
- aurrez aurre, hiru bulegoetako edozeinetan, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

**ARARTEKOA**

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa



## EDUKIEN TAULA

<b>GEEA-REN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO EPAIAK .....</b>	<b>6</b>
<b>GEEAren eta estatu kideen arteko elkarrizketa.....</b>	<b>6</b>
Stassart versus Frantzia, 2023ko apirilaren 4a (GEEA) .....	6
<b>EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA).....</b>	<b>7</b>
<b>Jabari publikoa okupatzeko emakidak .....</b>	<b>7</b>
C-348/22, Autorità Garante della Concorrenza e del Mercato e Comune di Ginosa, 2023ko apirilaren 20a (EBJA).....	7
<b>Haurrak / LGTBI pertsonak / Familia.....</b>	<b>8</b>
O.H. eta G.H. versus Alemania, 2023ko apirilaren 4a (GEEA) .....	8
A.H. eta beste batzuk versus Alemania, 2023ko apirilaren 4a (GEEA) .....	8
<b>Atzerritarrak / Adinekoak .....</b>	<b>9</b>
Ghadamian versus Suitza, 2023ko maiatzaren 9a (GEEA) .....	9
<b>Atzerritarrak / Familiak .....</b>	<b>11</b>
X eta beste batzuk versus Irlanda, 2023ko ekainaren 22a (GEEA) .....	11
<b>LGTBI pertsonak.....</b>	<b>12</b>
Buhuceanu eta beste batzuk versus Errumania, 2023ko maiatzaren 23a (GEEA).....	12
Maymulakhin eta Markiv versus Ukraina, 2023ko ekainaren 1a (GEEA) .....	12
<b>Presoak.....</b>	<b>14</b>
Demirtaş eta Yüksekdağ Şenoğlu versus Turkia, 2023ko ekainaren 6a (GEEA) .....	14
<b>Datuen babesa .....</b>	<b>15</b>
Jehovaren Lekukoak versus Finlandia, 2023ko maiatzaren 9a (GEEA) .....	15
C-487/21, Österreichische DatenschutzbehördeCRIF, 2023ko maiatzaren 4a (EBJA) .....	16
<b>Hirigintza / Ingurumena.....</b>	<b>17</b>
C-575/21, WertInvest Hotelbetrieb, 2023ko maiatzaren 25a (EBJA) .....	17

# GEEA-REN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO EPAIAK

## GEEAren eta estatu kideen arteko elkarrizketa

### GEEA

1. [Stassart versus Frantzia](#), 2023ko apirilaren 4a (demanda zk.: 79356/17)

*Frantziako Gobernuaren alde bakarreko adierazpena, segurtasun juridikoaren printzipioa urratu dela aitortzeko, eta GEEAri kausa artxibatzeko ondorengo eskaera.*

- GEEHko 37.1.c) artikulua (demandak artxibatzea, ez dagoelako justifikatuta demandaren azterketarekin jarraitzea) GEEHko 6. artikulua urratu izanaren eskaera batean (prozesu ekitatiboa izateko eskubidea)

Demandatzaileak GEEHko 6.1 artikuluan babesa bilatu zuen (bidezko epaiketarako eskubidea), Frantziako justiziak segurtasun juridikoaren printzipioa urratu zuela alegatzeko; izan ere, apelazioko zigor-auzitegiak zerga-iruzurreratik kondenatu zuen, baina alde aurretik administrazio-jurisdikzioak absolbitu egin zuen, demandatzailearen iritziz, auzi berbereratik. Demandatzaileak apelazioko zigor-auzitegiaren epaiaren aurka jarritako errekurtsioa ezetsi zuen Kasazio Auzitegiak.

Demanda Estrasburgora iritsi zenean, eta demandatzaileak auzia adiskidetasunezko akordio baten bidez amaitzeko Frantziako Gobernuaren eskaintzari uko egin ondoren, Frantziako Gobernuak alde bakarreko adierazpen bat egin zuen demandatzaileak planteatutako gaiei heltzeko, eta Auzitegiari eskatu zion demanda artxibatzeko, GEEHren 37.1.c) artikuluari jarraikiz. Alde bakarreko adierazpenak onartu zuenez, "behin betiko ebazita zegoen gai bati buruz Kasazio Auzitegia ados ez egoteak urratu egin zuen segurtasun juridikoaren printzipioa GEEHren 6.1 artikulua onduetarako", eta, horregatik, 7.200 euroko konpentsazioa eskaintzea proposatu zen. Demandatzailearen iritziz, konpentsazioa ez zen nahikoa, adierazpenak ez baitzuen ezabatu apelazioko zigor-auzitegiak ezarritako zigorra; era berean, ez zuen berriaz berretsi haren aurka emandako epai zibilaren betearazpenean atzera egingo zenik; eta, gainera, demanda artxibatzeak zigor-kondena berrikusteko eskubidea kenduko lioke, Frantziako zuzenbide penal prozesalaren argitan, GEEAren zigor-erabaki bat berrikusteko aukera ematen baitu.

GEEAk demanda bat artxibatzeko duen ahala erabiltzea erabaki zuen, GEEHren 37.1.c) artikuluari jarraikiz, auzitara eramandako gobernuaren alde bakarreko adierazpenean oinarrituta, nahiz eta demandatzaileak gaia aztertzen jarraitzea nahi izan. Horretarako, Auzitegiak kontuan hartu zuen Frantziako auzitegiek GEEAren erabakiak berrikusteko eskubidea interpretatzeko modua aldatu dela. Zehazki, Kasazio Auzitegiaren jurisprudentzia berriak prozesu penalak berriro irekitzeko aukera aitortu zuen, nahiz eta GEEAk demanda artxibatzea erabaki, alde bakarreko adierazpen bat dagoenean. Auzitegiak gogorarazi zuen ezen, Gobernuak alde bakarreko adierazpenaren baldintzak betetzen ez baditu, demanda GEEAren zerrendan sar litekeela berriz, GEEHren 37.2 artikulua arabera. Gainera, 12.000 eurora igo zuen Frantziako Gobernuak demandatzaileari ordaindu beharreko zenbatekoa, ez-betetzea gertatuz gero.

Antzeko beste epai batzuk: [Seker eta beste batzuk versus Turkia](#), zk. 58175/10, § 15, 2018ko abenduaren 18a.

## EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA)

### Jabari publikoa okupatzeko emakidak

#### EBJA

2. [C-348/22, Autorità Garante della Concorrenza e del Mercato e Comune di Ginosa, 2023ko apirilaren 20a](#)

- [Barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123 Zuzentarauaren 12. artikulua.](#)

*Arazo prejudizial batzuk planteatu ditu Apuliako Administrazioarekiko Auzien Lurralde Auzitegiak 2006/123 Zuzentarauaren aplikazioari buruz, Italiako hondartzen ustiapen-emakiden luzapen automatikoaren ondoriozko gatazka batean.*

Epai horretan, EBJAk jurisdikzio-organoei eta administrazio-agintariei gogorarazi zien ez dituztela aplikatu behar Europar Batasuneko Zuzenbidearen arauekin bat ez datozen zuzenbide nazionalako xedapenak. Kasu honetan, gatazkaren jatorria zera da: 2006/123 Zuzentaria Italiako ordenamendu juridikoan txertatu zuen legegintza-dekretuaren ondorengo lege italiarra, eta lege hori nola aplikatzen den udalerrri batean. Zehazki, gatazka itsas jabari publikoa okupatzeko emakidak emateari buruzko zuzentariaren 12. artikulua interpretazioan oinarritzen da. Xedapen horren arabera, estatuek hautapen-prozedura bat egin behar dute hautagai posibleen artean, baldin eta jarduera jakin baterako eman daitezkeen baimenen kopurua mugatua bada baliabide naturalen eskasiagatik. Baimena iraupen mugatu eta egokirako emango da, eta ez da automatikoki berrituko. Aurreko guztia legegintza-dekretu bidez Italiako ordenamendu juridikoan txertatu bazen ere, 2018ko lege batek adierazi zuen indarrean zeuden emakidak 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko zirela, administrazioak denbora izan zezan emakiden prozedura aldatzeko behar ziren neurriak hartzeko. Lege horren babesean, Italiako Ginosa udalerrriak itsas jabari publikoa okupatzeko emakidak luzatu zituen. Luzapen horren aurkako errekurtsioa jarri zuen Italiako Lehiaren Agintaritzak, eta gogorarazi zuen kontratazio publikoaren aurretiazko prozedura egin behar zela eta emakidak automatikoki luzatzea ezartzen zuten xedapen nazionalak ezin zirela aplikatu. Gaia auzitegietara eraman zen, eta auzitegiok, era berean, EBJAra jo zuten arazo prejudiziala bide, zalantzak baitzituzten zuzentariaren izaera autobetearazlearen eta aurkako arau nazionalen egozpen-eraginaren inguruan.

EBJAK adierazi zuen zuzentariaren 12. artikulua itsas jabari publikoa okupatzeko edozein emakidari aplikatzeko dela, alde batera utzita mugaz gaindiko benetako interesa duen edo elementu guztiak estatu bakar batera mugatzen diren. Era berean, xedapenak ez dio aurka egiten, estatu-mailan, eskuragarri dauden baliabide naturalen eta emakiden eskasia ebaluatzeko ikuspegi abstraktu eta orokor bat konbinatzeari, eta eragindako udalerrriaren kostaldeko lurraldearen azterketan oinarritutako ikuspegi kasuistiko bat ere erabiltzeari. Erabakiak xedapenaren zuzeneko eragina berretsi zuen; izan ere, ondorioztatu zuen zuzentariak baldintzarik gabe eta behar bezain zehatz adierazten duela estatuek hautapen-prozedura inpartzial bat egin behar dutela hautagai posibleen artean, eta jarduera jakin baterako emandako baimena ezin dela automatikoki berritu. Beraz, estatuko jurisdikzio-organoek eta agintari administratiboek, baita udalerrrikoek ere, kontrako xedapen nazionalak ez aplikatzeko betebeharra dute.

**GEEA**

3. [O.H. Eta G.H. versus Alemania](#), 2023ko apirilaren 4a (demanda zk.: 53568/18 eta 54741/18) eta [A.H. eta beste batzuk versus Alemania](#), 2023ko apirilaren 4a (demanda zk.: 7246/20)<sup>1</sup>

*GEEAren bi erabaki, guraso transexualaren egungo sexua, "errealitate biologikoarekin loturarik ez duena", trantsizioaren ondoren sortutako seme-alabaren jaiotza-partidan agertzeko legezko ezintasuna jorratzen dutenak.*

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzeko eskubidea): urraketarik ez

O.H. eta G.H.ren kasuan, lehen demandatzailea emakume jaio zen. Sexu-aldaketaren legezko aitortpena lortu ondoren, demandatzaileak bigarren demandatzailea, haren semea, erditu zuen, esperma-dohaintza baten bidez. Semearen jaiotza-ziurtagirian, lehenengo demandatzailea ama gisa erregistratu zen.

A.H.ren eta beste batzuen kasuan, lehenengo demandatzailea gizonezko jaio zen, eta sexu-aldaketaren legezko aitortpena lortu zuen. Bigarren demandatzaileak, bere neska-lagunak, hirugarren demandatzailea, haien semea, erditu zuen, zeina lehen demandatzailearen espermarekin sortu zen. A.H. aita gisa erregistratu zen jaiotza-ziurtagirian.

Alemaniko legearen babesean, eta nahiz eta seme-alabak jaio aurretik sexu-aldaketak legez aitortu, Erregistro Zibileko agintariek uko egin zioten lehen kasuko lehen demandatzailea (O.H.) aita gisa eta bigarren kasuko lehen demandatzailea (A.H.) ama gisa erregistratzeari, erditu den pertsona ama gisa erregistratu behar dela iritzita.

GEEAren arabera, guraso transexualen eskaerak aztertu behar dira, haien bizitza pribatua errespetatzeko eskubidearen babesean (GEEHren 8. artikulua). Eskubide horrek, halaber, autodeterminaziorako eskubidea barne hartzen du; horren funtsezko elementuen artean dago norberaren genero-identitatea definitzeko askatasuna. Seme-alabei eta bikoteei dagokienez, bizitza pribaturako eskubidea arriskuan dago, beren bizitza pribatuko alderdi jakin batzuk hirugarrenei jakinarazteak izan ditzakeen ondorioengatik, hala nola transexualitatearen kasuan. Auzitegiak kexagileen familia-bizitzarako eskubidea alde batera uztea erabaki zuen (GEEHren 8. artikulua beste alderdia), izan ere kexagileak elkarrekin bizi dira eta familia-harremana dute, eta Alemaniako agintariek ez zuten zalantzan jarri familia-harremana zegoenik.

GEEAk ziurtatu zuen bi kasuetan arriskuan zegoen auzi nagusia honako hau zela: ea Estatuak, demandatzaileei aplikatutako esparru juridikoaren bitartez, beren bizitza pribatuaren errespetua babesteko betebeharrak bete ote zituen. Auzitegiaren doktrinak printzipio orokor batzuk ezartzen ditu Estatuaren betebeharrak positiboak ebaluatzeko: demandatzailearentzat arriskuan dagoen interesak duen garrantzia eta interesak bizitza pribatuaren "funtsezko balioak" edo "funtsezko alderdiak" barne hartzen dituen; eta, orobat, eskatzailearentzat zer ondorio izan dezakeen errealitate sozialaren eta zuzenbidearen arteko desadostasunak. Auzitegiak, halaber, kontuan hartu du ustezko betebeharrak positiboak Estatuarentzat zer forma hartuko lukeen: estua eta zehatza edo zabala eta zehaztugabea.

---

<sup>1</sup> Bi epaiak batera aztertu dira, egun berean eman eta oso antzeko gaiak jorratzen baitituzte.



Auzitegiak argitu zuen, kasuaren inguruabar guztiak aintzat hartuta, Alemaniako agintariak balorazio-tarte handia dutela. Gainera, GEEAk argudiatu zuen Europako estatuetan ez dagoela adostasunik guraso transexualen haurren jaiotza-ziurtagiriak osatzeko moduari buruz, eta, beraz, balorazio-tarte handia dago. Hala, erabakiak ohartarazi zuen, bost herrialdetan izan ezik, Europako Kontseiluko estatu kide guztiak erditu den pertsona ama izendatzen dutela, eta esperma eman duen pertsonak aitatasuna aitortu dezakeela. Auzitegiak adierazi zuen adostasun falta horrek islatzen duela sexu-aldaketa eta amatasuna edo aitatasuna konbinatzeak arazo etiko delikatuak dakartzala.

Erabakiak adierazi zuen Alemaniako agintariak hainbat interes pribatu eta publiko aztertu behar izan zituztela, hainbat eskubide gatazkan baitzeuden. Hala, lehenik eta behin, guraso transexualen eta haien bikotekideen eskubideak. Jarraian, seme-alabek beren jatorriak ezagutzeko dituzten oinarrizko eskubide eta interesak, gurasoekin lotura juridiko egonkorra izateko interesa, eta bi gurasoen zaintza eta hezkuntza jasotzeko eskubidea. Azkenik, interes publikoa, zeina, kasu honetan, sistema juridikoaren koherentzia mantentzean eta Erregistro Zibileko akten zehaztasunean eta osotasunean oinarritzen baitzen. GEEAk onartu zuen azken alderdi horrek ere balorazio-tarte zabala eskatzen duela.

GEEAk gogorarazi zuen haurrek beren jatorriak ezagutzeko duten eskubidea GEEHk babesten duela, eta beren seme-alabatasunaren xehetasunak ezagutzeko eskubidea biltzen duela. Demandatzaileek adierazi zuten haurrek beren jatorriak ezagutzeko eskubidea eta agintariak guraso transexual baten erditzearen edo ernaketaren errealitate biologikoaren arrastoari jarraitzeko duten interesa hainbat modutan bete zitezkeela. Horren aurrean, auzitegiak adierazi zuen GEEHren 8. artikulua betetzen dela bermatzeko baliabideak aukeratzea, printzipioz, estatuen balorazio-marjinaren barruan sartzen den gaia dela.

Azkenik, haurren jaiotza-ziurtagiriek gurasoen identitate transexuala adierazteari dagokionez, GEEA Alemaniako justiziak emandako erantzunean oinarritzen da. Horren arabera, ziurtagirietan gurasoak ez aipatzeko edo sexu-aldaketa ez aipatzeko aukera dago.

Antzeko beste epai batzuk: X, Y eta Z versus Erresuma Batua, 1997ko apirilaren 22a, demanda zk.: [21830/93](#); Hämäläinen versus Finlandia, 2014ko uztailaren 16a, demanda zk.: [37359/09](#); Mandet versus Frantzia, 2016ko urtarrilaren 14a, demanda zk.: [30955/12](#); A.P., Garçon eta Nicot versus Frantzia, 2017ko apirilaren 6a, demanda zk.: [79885/12](#) eta beste batzuk; Valdís Fjölnisdóttir eta beste batzuk versus Islandia, 2021eko maiatzaren 18a, demanda zk.: [71552/17](#); Y. versus Polonia, 2022ko otsailaren 17a, demanda zk.: [74131/14](#).

## **Atzeritarrak / Adinekoak**

### **GEEA**

4. [Ghadamian versus Suitza](#), 2023ko maiatzaren 9a (demandaren zk.: 21768/19)

*Suitzan duela 50 urte baino gehiago bizi den adineko pertsona bati bizileku-baimena ematea ukatzea, 2002tik bertan modu irregularrean bizi bada ere, delitu astunengatiko kondenengatik kanporatzeko betearazi gabeko erabaki baten ondorioz.*

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea): urraketa.

Demandatzailea, Irangoa, 1969an iritsi zen Suitzara, eta bizileku-baimena lortu zuen. Bi seme-alaba izan zituen, eta 1979an bizileku-baimen iraunkorra eman zioten. 1988 eta 2004 bitartean, hainbat zigor-epai jaso zituen. Epai horiek guztira bost urteko espetxealdia zekarten, eta epaietako batek Suitzatik bost urtez kanporatzea agindu zuen. Kanporatzeko agindua 2002ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, baina eskatzailea ez zen inoiz lurraldetik irten. Bost urte igaro ondoren, demandatzaileak Atzerritarren Bulegoan eskatu zuen kanporatze-agindua atzera botatzeko eta pentsiodunentzako bizileku-baimena emateko. Agintariak ez zituzten eskaerak onartu, eta herrialdetik irteteko agindu zioten. Demandatzaileak 83 urte ditu gaur egun, eta modu irregularrean bizi da Suitzan.

GEEAk bizitza pribatua errespetatzeko eskubidearen ikuspegitik aztertu zuen kasua, eskatzailearen eta haren seme-alaba helduen artean familia-bizitza dagoela iradokitzen duen mendekotasun-elementurik ez dagoela zehaztu ondoren. Gainera, auzitegiak argitu zuenez, atzerritar batek bere bizitza pribatua Estatu baten lurraldean ezartzen badu bertan modu irregularrean bizi zelarik, ondoren bizileku-baimena ematea ukatzeak GEEHren 8. artikulua salbuespenezko inguruabarretan bakarrik urratzea dakar. Demandatzaileak Suitzan ezarri zuen bere bizitza pribatua, herrialde horretan legez bizi izan zen hogeita hamahiru urteetan zehar. Ondorioz, GEEAk kasua jokoan dauden interesak haztatuz aztertu zuen. Interes horiek kontuan hartu behar dira zehazteko ea estatu batek betebeharrak positiboak duen bere lurraldean legez kanpo bizi den atzerritar bati bizileku-baimena emateko.

GEEAk kontuan hartu zuen, demandatzailearen aurkako zigor penal errepikatuak kontuan hartuta, Suitzako agintariak demandatzailea ordena publikoko arrazoiengatik kanporatu nahi zutela, eta demandatzaileak fede txarrez jardun zuela kanporatze-aginduaren betearazpenari aktiboki uko egitean. Agintari nazionalak alegatu zuten kanporatze-agindua betearazteko zailtasunak zituztela, demandatzaileak ez zuelako aurkeztu Iranek itzulera onartzeko behar zuen pasaporte. Hala ere, auzitegiak zalantzan jarri zuen ea Estatuak pasaporte hori lortzeko eta kanporatzeko beharrezko eta posible ziren neurri guztiak hartu ote zituen, demandatzailea behin baino gehiagotan itzuli baitzen bere jatorrizko herrialdera (eta, pentsatzekoa denez, pasaporte mugan aurkeztu beharko zukeen). Bestalde, demandatzailea ia 50 urtez bizi izan zen Suitzan, baina modu irregularrean 16 urtez. Auzitegiak kontuan hartu zituen Suitzarekin izandako lotura estuak. Izan ere, Suitzan bizi izan zen bizitzaren zatirik handiena eta bi seme-alaba eduki zituen, eta haiekin oso harreman hurbila zuen. Erabakian gaineratu zenez, demandatzailea lan-bizitzan sartuta zegoen zalantzarik gabe, eta erretiro-pentsio bat jasotzen zuen. Ondorioztatu zen demandatzaileak egoera zail bati aurre egin beharko liokeela Iranera itzuliz gero.

Horregatik guztiagatik, eta kasuaren berezitasuna etengabe nabarmenduta, GEEAk adierazi zuen GEEHren 8. artikulua urratu zela, agintari nazionalak, balorazio-marjina gorabehera, ez zutelako frogatu gatazkan zeuden interesen arteko oreka bidezkoa lortu zutenik; aitzitik, interes publikoari gehiegizko pisua eman zioten pentsiodunentzako bizileku-baimena ukatzean.

Antzeko beste epai batzuk: Slivenko versus Letonia, 2003ko urriaren 9a, demanda zk.: [48321/99](#); Jeunesse versus Herbehereak, 2014ko urriaren 3a, demanda zk.: [12738/10](#); A.S. versus Sutiza, 2015eko ekainaren 30a, demanda zk.: [39350/13](#); Danelyan versus Suitza, 2018ko maiatzaren 29a, demanda zk.: [76424/14](#) eta [76435/14](#); Belli eta Arquier-Martinez versus Suitza, 2018ko abenduaren 11, demanda zk.: [65550/13](#); I.M. versus Suitza, 2019ko apirilaren 9a, demanda zk.: [23887/16](#); Pormes versus Herbehereak, 2020ko uztailaren 28a, demanda zk.: [25402/14](#).

## Atzerritarrak / Familiak

### GEEA

5. [X eta beste batzuk versus Irlanda](#), 2023ko ekainaren 22a (demanden zk.: 23851/20 eta 24360/20)

*Bi amari seme-alabengatiko prestazio unibertsala ukatzeko bi kasu, ohiko bizilekuaren irizpidea ez betetzeagatik. Eskatera egiteko unean, alaba eta semea administrazio-egoera erregularrean zeuden Irlandan, eta amak familia berriz elkartzeko baimena jasotzeko zain zeuden.*

-GEEHren 14. artikulua (diskriminazioaren debekua), GEEHren 8. artikuluekin batera (bitzta pribatua eta familia bitzta izateko eskubidea): onartezina

- GEEHren 14. artikulua (diskriminazioaren debekua), GEEHren 1. protokoloaren 1. artikuluekin batera (edukitzak modu baketsuan baliatzeko eskubidea): amentzat bakarrik onargarria eta urraketarik eza.

Demandatzaileak bi ama eta haien seme-alabak dira. Seme-alabak, seme-alabengatiko prestazio unibertsala eskatzeko unean, Irlandako immigrazio-sisteman sartuta zeuden. Zehazki, asilo-eskatzaileei ostaturia eta laguntza materiala zuzenean emateko sisteman (*direct provision*) (2018ra arte, sistema horrek ez zuen lan egiteko eskubiderik ematen). Kasu honetan, alaba eta semea Irlandan bizi zirenez, emakumeak prestazioa eskatu zuten unean familia berriz elkartzeko baimena emateko zain zeuden. Hasiera batean, Irlandako agintariek eskaera ukatu zuten, ohiko bizilekuaren irizpidea ez betetzeagatik. Hala ere, familia berriz elkartzeko baimena eman eta berehala, emakumeek prestazioa berriz ere eskatu zuten, eta agintariek eman egin zieten. Emakumeek eskatu zuten atzeraeraginez konpentsatzeko prestazioa jasotzeari utzi zioten denbora, familia berriz elkartzeko ebazpena eman artekoa.

GEEAk prestazioa GEEHren 8. artikuluen aplikazio-eremuan sartzen dela ondorioztatzea baztertu zuen. Auzitegiak argudiatu zuenez, prestazioa unibertsala denez eta ez denez derrigorrez erabili behar semearen edo alabaren onurarako, familia-bizitzan eragina izan arren, ezin da esan prestazio horren helburua "familia-bizitza sustatzea eta hori antolatzen moduari nahitaez eragitea" denik. Irizpide horiek GEEAk ezarri zituen [Beeler](#) epaian (ikus 2022ko urritik abendurako [Jurisprudentziaren hiru hileko begirada, 2022ko urria-abendua](#)). Kasu horretan, auzitegiak gaineratu zuen prestazioa jaso gabe igaro ziren aldiak nahiko laburrak izan zirela, eta, prestazioa jaso ez zuten bitartean, zuzenean emateko sistemaz baliatu ahal izan zirela.

Hala ere, GEEAk GEEHren 14. artikulua GEEHren 1. protokoloaren 1. artikuluekin batera aztertzea onartu zuen. GEEAk onartu zuen bizilekua edo migrazio-egoera jasota daudela GEEHren 14. artikuluko diskriminazio-arrazoen artean, baina amek egindako eskaera soilik jo zuen onargarritzat, prestazioa jasotzen duten aldetik. GEEAk EBJAren [C-34/09 epaia \(Ruiz Zambrano\)](#) aztertu zuen. Epaia horren arabera, estatu kideek ezin diote bizileku-eskubidea eta lan-baimena ukatu EBko herrialde bereko nazionalitatea duen seme edo alaba bat duen atzerritarrari. Izan ere, horrek seme-alabei EBko herritartasun-estatutuaren berezko eskubideen funtsa benetan baliatzeko aukera kenduko lieke, EBko lurraldea utzi beharko luketelako gurasoei laguntzeko. Baina, kasu honetan, GEEAk ondorioztatu zuen EBJAren epaiak ez duela defendatzen prestazioa atzeraeraginez ematea gurasoei, seme-alabek bizilekua lortzen duten unetik aurrera. Kasu honetan, halaber, GEEAk Europako Gutun

Sozialaren 12. artikulua kontuan hartu zuen, Gizarte Segurantzarako eskubidea baliatzean tratu-berdintasunari buruzkoa. Gutunaren eranskinak artikulua hori murriztu egiten du, eta aukera ematen die estatuei "beste leku batzuetako herritarrei prestazio horiek eman aurretik nahitaezko bizileku-aldia betetzeko" eskatzeko. Auzitegiak adierazi zuen demandatzaileak legezko bizilekuaren irizpideak haientzat izan zuen ondorio baztertzailleaz kexatu zirela, baina irizpide hori gizarte-segurantzako sistemen izaera nazionaletik zetorrela, eta esan zitekeela inklusio-eragina zuela, prestazioak jasotzeko eskubidea zabaltzen baitzuen; hala, Irlandako nazionalitatea zuten pertsonak edo bizileku-modu jakin batzuen onuradunak barne hartzeaz gain, bertan bizi ziren pertsona guztiak ere barne hartzen zituen. GEEAk ondorioztatu zuen kasu hau immigrazio-politikan txertatzen dela, zeinaren arabera estatuek eskubidea duten pertsonen bizilekua beren lurraldean kontrolatzeko.

Horrenbestez, GEEAk ez du uste eskatzaileen lehen prestazio-eskaeraren egitatezko eta zuzenbidezko elementuak Irlandan bizi ziren pertsonen antzeko egoeran jartzeko modukoak zirenik. GEEHren 14. artikulua aktibatzeke konparagarritasun-baldintza betetzen ez denez, eta GEEHren 1. protokoloaren 1. artikulua bateragarria izan behar duenez GEEHren 14. artikuluekin, auzitegiak adierazi zuen ez dagoela urraketarik.

Antzeko beste epai batzuk: *Niedzwiecki versus Alemania*, 2005eko urriaren 25a, demanda zk.: [58453/00](#); *Carson eta beste batzuk versus Erresuma Batua*, 2010eko martxoaren 16a, demanda zk.: [42184/05](#); *P.C. versus Irlanda*, 2022ko irailaren 1a, demanda zk.: [26922/19](#); *Beeler versus Suitza*, 2022ko urriaren 11, demanda zk.: [78630/12](#).

## LGTBI pertsonak

### GEEA

6. [Buhuceanu eta beste batzuk versus Errumania](#), 2023ko maiatzaren 23a (demanda zk.: 20081/19 eta 20 gehiago) eta [Maymulakhin eta Markiv versus Ukraina](#), 2023ko ekainaren 1a (demanda zk.: 75135/14)<sup>2</sup>

*Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) bi erabaki. Errumanian zein Ukrainan sexu bereko bikoteentzako inolako legezko aitortpenik eta babesik ez egotea aztertzen dute.*

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea): urraketa.

-GEEHren 14. artikulua (diskriminazioaren debekua), GEEHren 8. artikuluekin batera (bizitza pribatua eta familia bizitza izateko eskubidea): urraketa

Errumaniaren aurkako kasuan, demandak honako honetan oinarritzen dira: agintariak asegurututako pertsonen ezkontideei edo bikotekideei, bikotekideen gaixotasun-aseguruen kontratuei dagokienez. Demandatzaileek GEEAra jo zuten bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea urratu zitzaizela iritzita (GEEHren 8. artikulua). Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Komisarioak prozesuan esku hartu zuen, hirugarrenen esku-hartzearen bidez (GEEHren 36. artikulua), sexu bereko bikoteen legezko aitortpenerako eskubidea defendatzeko.

---

<sup>2</sup> Bi epaiak batera aztertu dira antzeko gaiak jorratzen dituztelako, baina bata bestetik bereizi da, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

GEEAk adierazi zuen Estatuak ez duela bete sexu bereko bikoteen aitortpena eta babesbermatzeko duen betebeharr positiboa, estatuei horri uko egiteko ematen zaien balorazio-tartea ez baita nahikoa. Auzitegiak 2023ko *Fedotova eta beste batzuk versus Errusiaren* erabakian ezarritako printzipio orokorrak hartu zituen oinarri (ikus erreferentzia antzeko epaien zerrendan). Bertan, GEEAk berretsi zuen estatu kideak behartuta daudela esparru juridiko bat ematera, sexu bereko bikoteak behar bezala aitortzeko eta beren harremana behar bezala babesteko. Gainera, argitu zuen estatuen balorazio-marjina nabarmen txikiagoa zela, sexu bereko pertsonen identitate pertsonal eta sozialaren alderdi bereziki garrantzitsuak jokoan baitzeuden. Era berean, Europako Kontseiluko estatu kideek sexu bereko bikoteen aitortpen juridikorako joera argia dute. Ondorioz, estatuen balorazio-marjina sexu bereko bikoteen eskura jarri beharreko araubide juridikoa zehaztera mugatzen da, bai formari dagokionez, bai edukiari dagokionez, bikotea ezkondata egotea beharrezkoa izan gabe.

Kasu honetan, Errumaniako legeriak ezkontza heterosexuala lotura bakar gisa jasotzen du. Auzitegiak gaitzetsi egin zuen Errumaniako agintariek aitortpen hori ez egiteko eman zuten argudioa. Argudioa zera da: herrialdeko herritar gehienak aitortpen horren aurka daude, eta goi-instantzia judizialak ez ziren horren alde agertu. GEEAren erabakiak gogorarazi zuen gehiengo heterosexualaren ustezko jarrera negatiboa edo aurkakoa ezin dela aurrez aurre jarri demandatzaileek beren harremana juridikoki aitortzeko duten interesarekin. Bestalde, adierazi zuen Errumaniako Konstituzio Auzitegiaren arestiko erabakiak aitortpen hori egokitzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak sartzearen alde daudela. Horregatik guztiagatik, GEEAk adierazi zuen Errumaniako Gobernuak emandako ustezko justifikazio-kausak ez direla gailentzen demandatzaileen interesen gainetik, eta Errumaniako Estatuak gehiegikeriaz jokatu zuela balorazio-marjinarekin.

Ukrainaren aurkako kasuan, demandatzaileak bi gizoneko bikotea dira. Agintariek Erregistroko hainbat bulegotan egindako ezkontza-eskaera guztiak ezetsi zizkieten, Konstituzioak eta Ukrainako Familia Kodeak ezkontza emakume baten eta gizon baten arteko familia-lotura gisa definitzen dutela alegatuz. Demandatzaileek GEEAra jo zuten diskriminazioa jasan zutela (GEEHren 14. artikulua) eta bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea urratu zitzaizela alegatuta (GEEHren 8. artikulua).

Auzitegiak Errumaniaren kasuan aplikatutako arrazoibidea errepikatu zuen, baina egitura desberdina erabili zuen sexu-orientazioagatiko diskriminazioa aitortzeko, sexu bereko bikoteei ez baitzaie inolako lege-aitortpenik eta babesik ematen. Erabakiak, lehenik eta behin, eskatzaileei antzeko egoeretan dauden pertsonekin alderatuta berdin tratatzen al zaien aztertu zuen. Aldea nabarmena da; izan ere, sexu bereko bikoteek ezin dituzte Ukrainako legeriak bikote heterosexualentzat onartzen dituen bi harreman motak izan: ezkontza eta izatezko bikotea. Sexu bereko bikoteen eskura dagoen tresna bakarra izaera pribatuko kontratu-akordioak dira, jabetzari buruzko alderdiak adosteko erabili ohi direnak. Baina GEEAk kontratu horiek ez ditu egokitzat jotzen sexu bereko bikoteak aitortzeko eta babesteko.

Tratatzeko modua desberdina dela ezarrita, GEEA horren justifikazio posibleak identifikatzen saiatu zen; izan ere, estatuek soilik bikote heterosexualak ezkontzeko duten aukera mugatzeko askatasuna dute (abiapuntu gisa hartu da GEEHren 8. artikulua zenbait irizpideri lotutako mugak izan ditzakeela). Baina, Errumaniaren aurkako kasuan azpimarratu zuen bezala, GEEAk gogorarazi zuen, ezkontzarekin ez bada ere, estatuek sexu bereko bikoteak behar bezala aitortzeko eta beren harremana behar bezala babesteko legeria onartzeko betebeharra dutela. Ukrainako Gobernuak ez zuen inolako justifikaziorik eman, eta, gainera, auzitegiari jakinarazi zion sexu bereko pertsonak izatezko bikotea izan ahal izateko lege-proposamen bat dagoela. Justifikaziorik ezean, GEEAk erabaki zuen familia tradizionalaren babesbermatzea zenbait estatuk alega zezaketen justifikazio hipotetiko gisa. Hala ere, oro

har baztertu egin zuen interes publikoko arrazoi hori baliozkotzat onartu ahal izatea sexu bereko bikoteei aitorten eta babes juridiko oro ukatzeko. Erabakiak, amaitzeko, Europako Kontseiluko estatu kideetan sexu bereko bikoteak legez aitortzeko eta babesteko gaur egun dagoen joera argia azpimarratu zuen, 30 herrialdek dagoeneko lege-aitorten hori egiten baitute.

Antzeko beste epai batzuk: Oliari eta beste batzuk versus Italia, 2015eko uztailaren 15a, demanda zk.: [18766/11](#) eta [36030/11](#); Fedotova eta beste batzuk versus Errusia, 2023ko urtarrilaren 17a, demanda zk.: [40792/10](#) eta beste batzuk.

## Presoak

### GEEA

7. [Demirtaş eta Yüksekdağ Şenoğlu versus Turkia](#), 2023ko ekainaren 6a (demanda zk.: 10207/21 eta 10209/21)

*Atxilotuek alegatu dute ez dutela benetako laguntza juridikorik jaso atxiloketa aurkaratzeko, espetxeko agintariak abokatuekin egiten dituzten bilerak zaintzen dituztelako eta trukaturako dokumentuak konfiskatzen dituztelako.*

-GEEHren 5.4 artikulua (atxiloketaren legezketasunari buruz azkar erabakitze eskubidea): urraketa

Demandatzaileak bi atxilotu dira, eta terrorismo-delitua egozten zaie. Atxilotuek alegatu zuten, agintariak larrialdi-egoerari buruzko Lege Dekretua aplikatu izanak berekin ekarri zuen abokatu-laguntza eraginkorrik ez jasotzea prebentziozko atxiloketa aurkaratzeko, espetxeko agintariak abokatuekin egindako bilerak zaintzen zituztelako eta haiekin trukaturako dokumentuak konfiskatzen zituztelako.

GEEAk adierazi zuen Turkiako agintariak ez zutela frogatu atxilotuen eta haien abokatuen arteko topaketen konfidentzialtasun-printzipioa indargabetzea justifika zezakeen salbuespenezko inguruabarririk zegoenik. Erabakiaren arabera, epaileek, ohikoek zein konstituzionalek, atxilotuen aurkako larrialdi-egoerari buruzko Lege Dekretua aplikatzeko zuten motibazioa estereotipatuta zegoen, eta ez zituen betetzen barne-zuzenbidearen betekizunak.

GEEAk berretsi zuen atxilotuak bere abokatuarekin hirugarren pertsonak entzun gabe komunikatzeko duen eskubidea gizarte demokratiko batean bidezko epaiketa egiteko oinarrizko baldintzetako bat dela, eta GEEHren 6.3 artikulutik ondorioztatzen dela. Auzitegiak gaineratu zuen polizien edo espetxe-langileen presentziak oztopatu egin dezakeela atxilotuek abokatuarekin eztabaidatzea egiteke dauden prozedurak. Halaber, salatze aukera ere oztopatu dezake, errepresalien edo abusuen biktima izateko beldurragatik. Abokatu-bezero harremanaren inguruko sekretu profesionala eta agintariak atxilotuaren eta haren ordezkariaren arteko elkarrizketen konfidentzialtasuna bermatzeko duten betebeharrak nazioarteko arau aitortuen artean daude. Abokatuak ezin badu bezeroa kontsultatu eta ezin baditu isilpeko jarraibideak jaso gainbegiratuta egon gabe, haren laguntzaren zati handi bat ez litzateke baliagarria izango, eta, beraz, GEEHren helburua urratuko litzateke (eskubide zehatz eta eraginkorrak babestea). Honako hauek dira GEEArentzat atxilotuen tratamenduaren arloan nazioartean erreferentziazkoak diren

testuak: [Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen Rec\(2006\)2 Gomendioa, estatu kideei zuzendutakoa, Europako espetxe-arauei buruz](#) (23. araua); Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9an (A/RES/43/173) onartutako [Edozein motatako atxiloketa edo presoaldia jasaten ari diren pertsona guztiak babesteko printzipioen multzoaren](#) 18. printzipioa; eta [Abokatuen funtzioari buruzko oinarritzko printzipioen](#) (1990) 8. eta 22. printzipioak.

Horrenbestez, auzitegiak baieztatu zuen akusatuaren eta haren abokatuaren arteko elkarrizketen konfidentziasuna oinarritzko eskubidea dela eta defentsa-eskubideekin zuzenean lotuta dagoela, eta printzipio hori salbuespenezko kasuetan soilik indargabetu daitekeela, betiere abusuen aurkako berme egokiak ziurtatuz. Kasu honetan, auzitegiak ondorioztatu zuen ezarritako murrizketek ez zutela babes nahikorik egon zitezkeen abusuen aurka, eta konfidentziasun-printzipioa urratzeak demandatzaileek abokatu-laguntza eraginkorra jasotzea eragotzi egin zuela, GEEHren 5.4 artikulua araberera.

## Datuen babesa

### GEEA

8. [Jhovaren Lekukoak versus Finlandia](#), 2023ko maiatzaren 9a (demanda zk.: 31172/19)

*Jhovaren Lekukoak elkarte erlijiosoari atez ate aldarrikatzean datu pertsonalak interesdunen baimenik gabe biltzea eta tratatzea debekatzea.*

-GEEHren 9. artikulua (pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna): urraketarik eza

Datuak Babesteko Herriaren Defentsa Erakundeak eskatuta hasitako prozedura batean, Finlandiako agintariek erabaki zuten Jhovaren Lekukoak elkarte erlijiosoari debekatzea datu pertsonalak biltzea eta tratatzea interesdunen baimen argia izan gabe, atez ate aldarrikatzean. Elkarte erlijiosoak erabaki hori errekurritu zuen, datuen tratamenduaren erantzukizuna haiek zutela esatea bidezkoa ez zela argudiatuta. EBJAk, Finlandiako epaileek planteatutako epaitu aurreko arazoan, [95/46/EE Zuzentaraua](#)<sup>3</sup> interpretatu zuen, baieztatzen Jhovaren Lekukoak elkarte erlijiosoak datuen tratamenduaren arduradun gisa jarduten zuela ([C-25/17](#)).

GEEAk bere erabakia oinarritzeko, elkarte erlijioso demandatzaileak bere fedea adierazteko duen eskubidearen (GEEHren 9. artikulua) eta interesdunen intimitaterako eskubidearen (GEEHren 8. artikulua eta datuak babesteko legeria nazionala) arteko oreka egokia lortu ote den aztertu zuen. Erabakiak, lehenik eta behin, elkarte erlijiosoaren zuzenbidean interferentziarik egon zen aztertu zuen, eta, hala izanez gero, interferentzia horrek legezkotasunaren eta interes legitimoaren printzipioa betetzen zuen. GEEAk ezartzen du datu pertsonalak biltzeko eta tratatzeko baimena emateko betekizuna injerentzia bat dela 9. artikuluan jasotako eskubidean, baina injerentzia hori legez behar bezala araututa zegoela (EBJ berretsi zuen bezala), eta interesdunen eskubideak eta askatasunak babesteko interes legitimoa betetzen zuela.

---

<sup>3</sup> Auzi hori [Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra](#) onartu aurretik sortu zen, eta, beraz, erreferentziako arau-esparrua 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua da, datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.



Ondoren, GEEAk injerentzia gizarte demokratiko batean beharrezkoa den aztertu zuen, eta, horretarako, datuak babesteko baimenean jarri zuen arreta. Erabakia EBJAren jurisprudentzian oinarritu zen, eta honako hau mahaigaineratu zuen: zenbait datu pertsonal jada jabari publikokoak izan arren, horrek ez du esan nahi eragindako pertsonen baimena behar ez denik. Kasu honetan, baimena ematearen betekizuna babes egoki eta beharrezkotzat jo behar zen, GEEHren 8. artikuluko bermeekin bat ez datorren datu pertsonal eta sentikorren edozein komunikazio edo hedapen eragozteko. Auzitegiak ez du uste interesdunaren baimena eskatze eta jasotze hutsak oztopatu zezakeenik elkarte eskatzailearen erlijio-askatasuna.

Antzeko beste epai bat: Satakunnan Markkinapörssi Oy eta Satamedia Oy versus Finlandia, 2017ko ekainaren 27a, demanda zk.: [931/13](#)

## **EBJA**

9. [C-487/21, Österreichische Datenschutzbehörde eta CRIF](#), 2023ko maiatzaren 4a

- [2016/679 \(EB\) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa](#)

*Austriako Administrazio Auzitegi Federalak planteatutako arazo prejudiziala, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ezartzen duen betebeharraren irismenari buruzkoa, interesdunei tratatzen ari diren beren informazioaren edo datu pertsonalen kopia bat emateari dagokionez.*

Epai horretan, EBJAk interesdunak tratatzen ari diren bere datu pertsonalak eskuratzeko duen eskubidearen definizioa eta irismena argitu zituen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 15.3 artikuluari jarraikiz. Kasua demandatzaileak CRIFi egindako eskaeraren ondorioz sortu zen. Enpresa-aholkularitzako agentzia horrek, bere bezeroek eskatuta, hirugarrenen kaudimenari buruzko informazioa ematen du. CRIFek bere datu pertsonalak tratatu zituela jakinda, demandatzaileak, DBEOren babespean, bere datu pertsonalak eskuratzeko eta dokumentuen kopia bat eskatu zituen. Demandatzaileak bere datuen dokumentu guztien kopia espero zuen; CRIFek, ordea, tratatu zituzten bere datu pertsonalen zerrenda labur bat baino ez zion eman.

EBJAren arabera, DBEOren 15.3 artikuluan aipatzen den “kopiak”, arauan definitzen ez bada ere, esan nahi du interesdunak datuen tratamenduaren arduradunak tratatzen dituen bere datu guztien kopia fidel eta ulergarria jaso behar duela. Eskubide horrek berekin dakar dokumentuen laburpenen kopiak edo dokumentu osoak edo datu horiek dituzten datu-baseen laburpenak jasotzeko aukera, baita beste pertsona batzuen datuak ere. Azken hori soilik aplikatuko da kopia ematea ezinbestekoa bada interesdunak DBEOk ematen dizkion eskubideak benetan baliatu ahal izateko, eta betiere hirugarrenen eskubideak eta askatasunak kontuan hartuko dira. Nolanahi ere, epaiak argitu zuen interesdunak informazioa eskuratzeko duen eskubidearen eta hirugarren pertsonen bere datuak babesteko duten eskubidearen arteko haztapenak ez duela ekarri behar interesdunari informazio guztia ez ematea.

DBEOren 15.3 artikuluan aipatzen den “informazioari” dagokionez (hori ere ez da arauan definitzen), EBJAk zehaztu zuen tratamenduaren arduradunak eman beharreko datu pertsonalen kopiari soilik egiten diola erreferentzia.



## Hirigintza / Ingurumena

### EBJA

10. [C-575/21, WertInvest Hotelbetrieb](#), 2023ko maiatzaren 25a

- [2014/52/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa, zenbait proiektu publiko eta pribatuk ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoa](#)

*Administrazioarekiko Auzien Vienako Eskualde Auzitegiak planteatutako arazo prejudiziala, 2014/52/EB Zuzentarauak ezartzen duen betebeharraren irismenari buruzkoa, urbanizazio-proiektu baten ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa okupatutako eta eraikitako azaleraren arabera egiteari dagokionez.*

Kasua enpresa batek Vienari egindako eskaeraren ondorioz sortu zen, Vienako hirigune historikoan (UNESCOren gizadiaren ondarea) hirigintza-proiektu baterako obra-lizentzia emateko. Udal-administrazioak enpresari jakinarazi zion, Austriako zuzenbidearen arabera, proiektuak ez zuela zertan ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin. Erabaki hori tokiko erakundeek errekurritu zuten. Auzitegi austriarrek errekurtsio horien berri izan zuten, eta arazo prejudiziala EBJAn aurkeztu zuten.

Epai horretan, EBJAk adierazi zuen urbanizazio-proiektu baten ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko betebeharra ezin dela soilik haren tamainaren araberakoa izan; hala, "urbanizazio-proiektuen" ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa azalera okupatu eta eraiki gordinaren (kasu honetan, 15 hektarea eta 150.000 m<sup>2</sup>) atalase espezifikoak gainditzearen arabera egitea ezartzen duen araudi nazionalaren aurkakoa da.

EBJAren ustez, estatu batek atalaseak ezarri nahi baditu ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharra ebaluatzeko, hainbat elementu hartu behar dira kontuan, hala nola proiektuen kokapena; besteak beste, tamaina desberdinetako proiektuei dagozkien atalaseak finkatu daitezke, proiektuaren izaeraren edo kokapenaren arabera aplikatzekoak. Proiektua UNESCOren gizadiaren ondare katalogatutako leku nagusian kokatuz gero, proiektuen kokapenari buruzko irizpidea oso garrantzitsua litzateke.

EBJAK baieztatu zuenez, Austriako legeriak hiri-ingurunerako (non lekua mugatua baita) ezartzen dituen atalaseak hain dira handiak ezen, praktikan, urbanizazio-proiektu gehienak aldeztatik salbuetsita baitaude ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko betebeharratik. Azken batean, bertako auzitegi eskudunei dagokie erabakitzea proiektu guztiak edo ia guztiak aldeztatik betebeharratik salbuetsita dauden ala ez. Hala ere, EBJAk adierazi zuen hori bateraezina izango litzatekeela zuzentarauarekin.

Bestalde, EBJAk adierazi zuen zuzentaruaren ez dela baimentzen banakako eraikuntza-proiektuetarako obra-lizentziak ematea, baldin eta proiektu horiek urbanizazio-proiektu zabalagoen barne badaude, beharrezko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin aurretik edo ingurumenaren gaineko eraginaren kasuan kasuko azterketa amaitu aurretik, ebaluazio hori beharrezkoa den zehazteko.





Zuzeneko arreta emateko bulegoak

Arabán

Prado 9 • 01005 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Bizente 8, 11. solairua  
48001 Bilbo  
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate. 19, 1.a  
20005 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943 42 08 88